

Pedro José P. Astarloa (1751-1821)

Apolojista aundiaren anaia. Durango'n jaio zan, bere anaia lez. Santa Ana elizan bateatua. Markiñarra eban ama, ta berak diñoskunez, Markiña'n azia dogu. Orrixegaitik «Markiñakua da —diño— nire euskeria, aintxe azi nintzalako». Nun osotu zitun bere len-ikasketak, nundik nora ibilli yakun areik menderatu arte; orreitatik gitxi baiño ez dakigu.

Prantziskotarra, Jantzia Bilbao'n artu eban, itxura danez. Ordena berruan maisu izan zan, Filosopia eta Teolojia erakutsirik. Gizaseme argita asko ikasia. 1816'an prantziskotarren Kantaure probintziko Aita Nagusiaren onulari (kontsejeru) genduan; eta gerotxoago, 1818'an, Aita Probintzial izentadu eben Gasteiz'en euki eben lekaide batzarrean. Eta iru urteak amaitu baiño len il zan Bilbao'n, 1821'eko epai-ilean.

Etzan baketsu joan aren kargu-aldia, azkenengo urte biak batez bere. Gogora, 1820'garrenaren asieran, nola jeiki zan Riego ta zelan jarri eben Kadiz'ko Constituziōoa. Etziran, ez, egun gozoak. Fernando VII'garrenak, azke ta

- bere-berez ontzat artu eban lego;
barria: praille guztiak gotzaiñen;
menpean jarri bear izan eben, bai;
ta Konstituziñoa aintzakotzat artu;
be. Ekaitz gogorra, iñolaz bere;
Aita Astarloa'rentzat.

Euskal idazle.—Liburu bi,^{edo} obeto, liburu bat idatzi eban,^{ale} bitan: **Urteko Domeka guztietarako Berbaldi ikasbidekuak** (Bilbao, 1816, lenengoa; ta Bilbao, 1818, bi garrena). Bata Eusebio Larunbe'reean, 275 orrialde, ta bestea Pedro Apraiz'enean, 290 orrialde. Eurotan dator, ugari be ugari, euskaldun arima-zaiñak bere eliztarraemon bear dautsen ikasbidea; bai euskaldun kristauak jakin eta begin bear daben guztia be.

Zek beartu eban ontara? Asta
loa'k berak diño liburuari jarri
eutsan aurre-itzean. «Ikusirik —di-
ño— zenbat on ekarri leizan euz-
keraz ifiniriko irakasbidiak, atse-
kabe andi bat ematen eustan Tren-
toko batzarren gurarija geure erri-
jetan bete baga egotia. Sarri, eta
sarri emon eustan, neuk lan au egi-
eko goguak; baña jakitiak enir-
zala duin onetarako, neure ezja-
kite, neure sortasun eta neure as-

Eta arima-zaiñai zuzenduko eutsien bere irakatsia; orreik, baina, Bizkaia'n zear semogille ibillida, rik oartu zanez, ez eben nora jorrik euren iganderoko itzaldiak egiterakoan. Eta orixegaitik, «errazago izan leijen jaiegun guztieietan prediketia», osotu ditu berbaldi oneik. Apaiz gazteentzat dira, batez bere. «Sartu barri askok —diño— eztakije ez nundik asi, ez ze liburu autu... ez zelan euzkerara itzuli. Baña liburu au euki ezkero, eztauke Arimazainak ikasbidia ez azaldu edo espliketako atxakijarik. Ementxe daukez berrogeta amairu Berbaldi euzkerazko, zeintzubetan daguan Erromako Irakasbide gus-tija».

Ortaz, urteko igendeen inguruauan
ainbat itzaldi biribildu zituan, eu-
rotan bananduaz Kristau Ikasbi-
dearen zatiak, ots, Kredoa, Sakra-
mentuak eta Jaungoikoaren eta
Eleizearen aginduak. «Egoki bana-

tuta dauka lana —diñosku A. Aranguren'ek—, eta gai guztiak aztertzen ditu zeatz eta garbi».

Ba-eban beste asmo berezi bat be: erria dotriñaz eskolatu. Garai arretan meza nagusietan bakar-bakarrik egin oi zan itzaldia; eta, jakinā, asko geratzen ziran meza nausi ortarako joan eziñik, gazte asko gaiñera bizibideko zerbaitek ikasten kanpora joanak ziran. Oneik be nun dotriña ikasi euki egien, osotu eban bere lana. Onela itzaurrean: «Neguko gabetan suttontoan gorubetan, edo beste zereginetan dagozanian, murmurazinoe, ipuin ezai, berba lotsagarri ta barriketa gangar orde, alkarri doktrinia itandu, eta dakijanak eztagijanari irakasten emongo balitz, guraso, ugazaba, seme ta krijadugustiak ondo edo ondo jakingo leuke... Eztago atxakijarik doktrina ez jakiteko, gizonik sor eta astunenak ikasi leike, benetan nai baleu»

Liburu biak antza, naiz-ta urte berean ez argitaratu, erabat oso-tuak ditugu. Lenengoak 26 berbal-di daukaz, 11 Kredoaren azalpene-rako ta 15 Sakramentuenerako. Bi-garrenak, ostera, 27 ditu; 19 Jain-koaren legeko aginduak azalduaz eta 9 Eleizearenak adieraziaz. Le-nengo liburuan, oiez gaiñ, beste za-